



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

INDARKERIA MATXISTEA "EGITURAZKOA" DA ETA GERO ETA "BALIABIDE ETA ESKU-HARTZE GEHIAGO" BEHAR DITU DESAGETUARAZOTEKO

- Teresa Laespada Enplegu, Gizarte Inklusio eta Berdintasuneko foru diputatuak pandemiaren testuinguruan egin dan indarkeria matxistaren inguruko azterlan bat aurkeztu dau Bizkaiko Batzar Nagusietan.
- Batzar Nagusietako taldeek urteko 365 egunetan bardintasunaren alde lan egitera animau dabe gizartea, eta zemendiaren 25ean antolatutako ekitaldietan parte hartzera konbidau dabe.

(Bilbon, 2021eko zemendiaren 25ean). Aldundiak COVID-19aren krisiak indarkeria matxistan izan dauen eraginaren inguruko azterlan bat aurkeztu dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan, eta, holan, apirilaren 14an Bizkaiko Legebatarrean aho batez onartutako arauz besteko proposamena bete dau. Txostena Kamaraka-Contenidos ikerketa-aholkularitzak egin dau, eta 2020ko Bizkaiko indarkeria matxistari heltzen deutso, etxeko konfinamendua eta deseskalatze-faseak dekretau ziran hilebeteetan batez be. Fenomeno horrenk erakusten dauen "gorako gero eta joera handiagoa" dala eta, Teresa Laespada Enplegu, Gizarte Inklusio eta Berdintasunerako diputatuak esan dau indarkeria matxistea "egiturazkoa" dala eta, beraz, "baliabide eta esku-hartze gehiago" behar dirala horri aurre egiteko.

2020ko datuek berretsi egiten dabe azken hamarkadan hautemandako "goranzko" joerea. Pandemiaren urte horretan, Bizkaiak "2.961 biktimizazino" izan ebazan, eta hori, 2019koagaz batera (2.989), "azken 18 urteetako kopururik altuena" izan da, foru arduradunaren berbetan. Genero indarkeriak Bizkaia osoari eragin eutsola azpimarratu dau Laespadak. Bizkaiko "85" udalerritan hauteman zan kasuren bat, eta horrek eskualdeen artean "ez dagola alderik" erakusten dau. 2004tik, "23 emakume" erail ditue.

Aldundiaren zerbitzuei jagokenez, Laespadak baieztu dau "82" ume eukiezan 105 emakumek jaso ebela Aldundiaren Larrialdi Zerbitzuaren laguntzea eta "1.481" emakumek arreta psikologikoa jaso ebela. Ikerketak erakusten dauenaren arabera, "konfinamenduak sufrimentua gehitu deutse indarkeria matxistaren biktimei"; izan be, gizon erasotzaileek "kontrol handiagoa eta inpunidade gehiago" izan eben, "biktimakaz batera etxean isolatuta geratu ziralako".

Patricia Campelo Bardintasunerako Foru zuzendariak jaso dau lekukoa, hainbat iturri ofizialen bidez eta hainbat arlotako adituakaz egindako sakoneko 18 alkarrizketaren bitartez egindako txostenetik ateratako datuetan eta ondorioetan sakontzeko.

Campelok, dagozan hiru biktimizazino moeten (bikotekidea, familiakoa eta sexuala) inguruko beste datu batzuk emon ditu, eta guztiek adierazoten dabe "goranzko" joerea dagola 2010. urtetik. Urte horretan "1.762" biktimizazino hauteman ziran lurralde historikoan. Halanda be, ikuspegi bi emon ditu. Bata "itxaropenezkoa", izan be, "kasu gehiago geratu dira agerian". Eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

beste bat “alarmazkoa”, kasuak etenik barik hazten ari diralako. Hortik ondorioztatzen da arazo horrek “lehentasuna” izan behar dauela gizartearentzat.

Konfinamenduan ikusi dan indarkeria matxistaren ereduari jagokonez, “erasotzaileak emakumeengan daukan kontrola areagotzea, banaketaren eta salaketaren bidez indarkeriatik urtetako aukerak mugatzea eta zuzeneko arreta profesionala jasoteko aukera gitxiago izatea” izan dira ezaugarri nagusiak. Campelok indarkeria moeta hori kroniko bihurtu dala Euskadin salatu dau, 11 urte eta 7 hilebete behar izaten diralako salatzeko, Estaduan baino hiru urte gehiago.

Batzar Nagusietako talde guztiek bat egin dabe Begoña Gil Enplegu, Gizarte Inklusino eta Bardintasunerako Batzordeko presidentearen berbakaz, eta alkartasuna adierazo deusie indarkeria matxistaren biktimei, eta urteko 365 egunetan bardintasunaren alde lan egiteko eta azaroaren 25ean egingo diran ekitaldietan parte hartzeko deia egin deusie gizarteari. Laespadak bat egin dau biktimen oroimenagaz, hirurogeiko hamarkadan Dominikar Errepublikan Trujilloren diktaduran egun horretan bertan hildako Mirabal hiru ahiztak eta aurtan Euskadin eraildako “Kontxi eta Erika” euskal emakume biak aitatz.

EGOITZETAKO BEHARGINENTZAKO PRESTAKUNTZEA

Beste alde batetik, diputatuak EH Bilduri baieztu deutsoenez, bere sailak adinekoentzako itunpeko egoitzetako, Azpiegiturak-eko edo udal egoitzetako beharginen trebakuntza profesionala hobetzeko diru-laguntzak handitzeko asmoa dauka. Lehenengo deialdian, “465 persona” barne hartzen dituen “31 prestakuntza-plan” aurkeztu dira. Egoitzetako beharginen artean “prestakuntza espezifikorik bako” “1.192” behargin dagoz. Halanda be, Laespadak ezin izan dau baieztu behin-behineko beharginentzako prestakuntza martxan jarriko danik. “Arazoa da ez dirala euren ohiko plazara itzultzen”, esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA VIOLENCIA MACHISTA ES “ESTRUCTURAL” Y NECESITA CADA VEZ “MÁS RECURSOS E INTERVENCIÓN” PARA SU ERRADICACIÓN

- **La diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, presenta en las Juntas Generales de Bizkaia un estudio sobre la violencia machista en el contexto de la pandemia.**
- **Los grupos junteros animan a la sociedad a trabajar por la igualdad los 365 días del año e invitan a participar en los distintos actos organizados por el 25-N.**

(Bilbao, a 25 de noviembre de 2021). La Diputación ha presentado hoy en las Juntas Generales de Bizkaia un estudio sobre el impacto que ha dejado la crisis COVID-19 en la violencia machista, cumpliendo así la proposición no de norma aprobada por unanimidad en la Cámara vizcaína el 14 de abril de este año. El informe, elaborado por la consultora de investigación Kamaraka-Contenidos, aborda la violencia machista en Bizkaia en el año 2020 y, especialmente, en los meses en los que se decretó el confinamiento en el hogar y las distintas fases de desescalada. A raíz de la tendencia “creciente” de este fenómeno, la diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha dicho que la violencia machista es “estructural” y que, por tanto, se necesitan “más recursos e intervención” para hacerla frente.

Los datos de 2020 confirman la tendencia “creciente” detectada en la última década. En el año declarado como el de la pandemia, Bizkaia registró “2.961 victimizaciones”, una cifra que supuso, junto con la de 2019 (2.989), la “más alta de los últimos 18 años”, según la responsable foral. Laespada ha destacado también que la violencia de género afectó a toda Bizkaia. Se detectó algún caso en “85” municipios de Bizkaia, lo que demuestra “que no hay diferencias” entre comarcas. Desde 2004, se han asesinado a “23 mujeres” en el territorio.

En cuanto a los servicios de la Diputación, Laespada ha confirmado que “105” mujeres, con “82” niños o niñas, recibieron asistencia del Servicio de Urgencia de la Diputación y que fueron “1.481” las mujeres atendidas en el Servicio de Atención Psicológica el pasado año. Del estudio se extrae que “el confinamiento ha añadido sufrimiento a las víctimas de la violencia machista”, ya que los hombres agresores “aumentaron su control e impunidad al quedar aislados en sus domicilios junto a sus víctimas”.

La Directora Foral de Igualdad, Patricia Campelo, ha recogido el testigo de la diputada para profundizar en los datos y conclusiones que se extraen del informe, que ha sido elaborado contando con datos extraídos de fuentes oficiales y con 18 entrevistas en profundidad con expertos de diversos ámbitos en el terreno de la violencia de género.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Campelo ha aportado otros datos sobre los tres tipos de victimización existente (pareja, familiar y sexual), y todos ellos apuntan a que hay una tendencia “creciente” desde el año 2010 en el que se detectaron “1.762” victimizaciones en el Territorio Histórico. Sin embargo, ella ha aportado dos lecturas. Una de “esperanza”, ya que “se han hecho visibles más casos”. Y otra de “alarma”, precisamente porque los casos no dejan de crecer, de lo que se concluye que este problema debe pasar a ser “prioritario” para la sociedad.

En cuanto al patrón de violencia machista del confinamiento, se ha caracterizado por “un aumento del control del agresor sobre las mujeres, la limitación de las oportunidades para salir de la violencia a través de la separación y la denuncia, y menores posibilidades de recibir atención profesional directa”, ha resumido. Campelo se ha parado a denunciar también la “cronificación” de la violencia en Euskadi, ya que se tarda en denunciar 11 años y 7 meses, tres años más que en el resto del Estado.

En este Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres, todos los grupos junteros se han sumado a las palabras iniciales de la presidenta de la Comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Begoña Gil, que ha mostrado su solidaridad con las víctimas de violencia machista, y ha animado a la sociedad a trabajar por la igualdad los 365 días del año y a participar en los distintos actos organizados hoy. Laespada se ha unido a esta reivindicación recordando los asesinatos de las tres hermanas Mirabal en la dictadura de Trujillo este mismo día en la República Dominicana en los años 60, y de “Kontxi y Erika”, las dos vascas asesinadas este año en Euskadi.

FORMACIÓN PARA EL PERSONAL DE RESIDENCIAS

Por otro lado, la diputada ha confirmado a EH Bildu que su departamento sí tiene intención de ampliar las subvenciones para la mejora de la capacitación profesional del personal de las residencias concertadas para personas mayores, al personal dependiente de Azpiegiturak y de residencias municipales. En la primera convocatoria, se han presentado “31 planes formativos” que afectan a “465 personas”. La plantilla “sin formación específica” se eleva entre el personal de residencias a “1.192” personas. Laespada no ha podido confirmar, sin embargo, la formación para trabajadores eventuales. “El problema es que no vuelven a su plaza habitual”, ha dicho.